



## 21 Beste autore batzuk

## Beste idazle eta obra batzuk

Gure letren Aro Klasikoan aukera bat egin behar izan dugu. Idazle eta obra garrantzitsuak ezagutu eta landu ditugu. Baina beste batzuk utzi behar izan ditugu, neurri egokitzearren. Ikuspegia osatzeko, hona horietako batzuen laginak, labur-labur bilduta.

EZEZAGUNA. Elorriur aurkitutako  
1609. maitasun kanta

*Ene begiakaz bibotzen artean  
errenkore handiak erne zitean.*

*Onerestea daukat bibotzean sarturik  
linda eder galant bat kausea izanik.  
Begiratu negion eta egun batean  
errenkore handiak erne zitean.*

*Bibotza begien dago kereila,  
zana librea haiek gaitik katiga zidila.  
Eta atera ebelako bere etxerean  
errenkore handiak erne zitean.*

*Begiak deutse egotzen bibotzari kulpea,  
barganik jaijo zala onerestea.  
Ta bagaitirren aditu zeren zirean,  
errenkore handiak erne zitean.*

RAFAEL MIKOLETA. Euskara ikasteko  
1611, Bilbo. lehen metodoa

*Modo breve de aprender la lengua vizcaína, 1653*

(Tabernan)

D. PEDRO Mutil, iguk  
edaten, ze piperrak  
piketan jok.

A.: Zein atsegin dau,  
zuria ala gorria?

D. P. Ekazu zurire-  
an, zerren da bero-  
ago goizetarako.

D. JUAN Ta osasun-  
tsuago da gorria  
baino.

*Amoren kontentuek  
ez daude irauten.  
Kanpoan lorak legez  
dira galtzaiten.*

*Lar adi bazagotzaz  
fapore bateri,  
etorriko jatzu  
gatxa bertati.*

JOAN KLABERIA. Garibai eta Etxabe  
1636. historialarien aurka

*Elizara erabiltzeko liburua-ren sarreran*

*Burlatzen naiz Garibaiez,  
bai halaber Etxabez,  
zeinak mintzatu baitire  
erdaraz euskaldunez.  
Ezen direnaz geroztik  
euskaldunak bek biak  
euskaraz behar zituzten  
egin bere historiak.*

BERNARD GAZTELU- Marinelentzat,  
ZAR. ZIBURU. 1619-1701 prosaz eta bertsoz

*Egia katolikak, 1686*

*Urrun badi, Parnasoko  
musa zabar profanoa,  
eta zato, zeruko  
musa dibinoa.  
Jesus Kristo gure jauna  
ekar bezate bibotzek,  
iturriek ur saildua,  
fruitu bizia haritzek.  
Adio, Febus, hire etxe,  
hire itsaso guztia,  
ez zarete asko hiltzeko  
ene egarri handia.*

EZEZAGUNA Maitasun poema. 1723ko  
ezkontza baten harian

*Maitia nun zira (Lehen zatia)*

*Maitia, nun zira?  
Nik ez zütüt ikusten,  
ez berririk jakiten,  
nurat galdü zira?  
Ala kanbiatu da zure deseina?  
Hitz eman zenereitan,  
ez behin, bai berritan,  
enia zinela.*

JEAN ROBIN, 1738-1821. Iraultza fran-  
DONIBANE LOHIZUNE. sesari kritika

*Nazioneko Besta, 1789 (Zatiak)*

*Senperen egin dute besta bat handia.  
Deklaratzera noa, guziek goardia.  
Jaun erreterak ditu denak gomiatu,  
nazioneko besta dute oboratu.*

*Atso zabar batzuk, ongi apaindurik,  
plazara bildu dira, elgar aditurik.  
Ikusi dutenian ban ez dela deusik,  
ostatura joan ziren, bibotzak ilunik.*

PEDRO ASTARLOA. Pablo apologista-  
DURANGO. 1751-1821 ren anaia

*Berbaldi Ikasbidekuak, 1816*

*Murmurazinoea sarri eta sarri hasi obi  
da alabantzeagaz. Urليا, esaten da, ze  
gizon ona dan. Ez dozu hori tabernan,  
jokoan, ez edanik ikusiko. Gizon zin-  
tzoa, prestua eta behargina; ez dago  
bera lezkorik adiskide bati mesede bat  
egiteko; ez deutsu horrek egunik itxiko  
meza entzun бага, ez da luzaro egongo  
konfesadu eta komulgadu бага. Ez  
neuke nabi bera baino adiskide boberik.*

FRAI BARTOLOME. Dantzen kontrako  
MARKINA. 1768-1838 obra ospetsua

*Olgeta eta Dantzen Gatz-Ozpinduba, 1816*

*Dinot "neskak", ezkondu bagako emaku-  
meak gaiti, neskatilak ez esatearren.  
Bada, neskatilearen izenak, guztiak ondo  
dakien legez, beragaz dauka errespetua,  
modestia, onestidadea, ta lotsorra izatea.  
Ta modu batan piestarik piestara, ta dan-  
tzarik dantza gizon esku artean likinduta  
dabiltzan emakume ezkondu bagakoak,  
ez daukeen legez, ez lotsarik, ez modes-  
tiarik, ez onestidaderik, ezin emon legioe  
egiazko arrazoean "neskatilearen" izen  
ondraua, ezpada neskaren izena. Ez jako  
beleari uso esaten, ezpada belea.*

JOAKIN LIZARRAGA. Eguesibar, Iruñea  
ELKANO. 1748-1835 ekialdeko hizkera

*Obra zabala: sermoiak, kateximak...*

*Bazebiltza bazebiltza, nondik harrapa-  
tu deskuidoren bat Jaun dibinoan;  
baina ezin. Azkeneko erresolbitu zute  
bilaraztea halaz edo bolaz. Judas  
Iskariote apostolu traidorea joan  
zekiote, eta bogeita hamar dirutan  
ajustatu zue axuri dibinoa entregatzea  
haien eskuetan. Hain merke saldu zen  
gloriako Jaun errege, balio duena zeru  
guztiak adina!*